

PLAN ESTRATEGIKOA 2018 – 2021

<https://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia/home>

eman ta zabal zazu



UPV EHU

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

50
URTE
AÑOS

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. Sarrera | 4 |
| 2. Gaur egungo egoeraren diagnostikoa | 5 |
| 3. Xedea, balioak eta ikuspegia | 14 |
| 4. Posizionamendua eta mapa estrategikoa | 16 |
| 5. Ardatz estrategikoekin lotutako ekintzak | 19 |
| 6. ERANSKINAK | 31 |

1. SARRERA

2017-2018 ikasturtean, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak plan estrategikoa prestatzeko prozesuari ekin zion. 2018-2021 aldirako plana izango da, eta dokumentu honetan dago zehaztuta. Plan estrategikoak Fakultateak datozen urteetan izango dituen lehentasunak ezarri, eta lortu nahi dituen helburuak finkatzen ditu, baita gauzatuko diren ekintzen emaitza zehatzak ere. Labur esanda, ikastegiak 2021era bitarte garatuko duen estrategia jasotzen du.

Plan estrategikoa prestatzea gogoeta prozesu bat izan da funtsean, eta buru izan du dekanotza taldea; prozesu horretan, ikastegiaren egoera errealaren barne analisia egin nahi izan da, autokonplazentzia alde batera utzita eta gizartearen egungo eskaerak kontuan hartuta. Horrez gainera, prozesu partizipatibo bat izan da, ikastegiko jarduerarekin zerikusia duten estamentu eta eragile gehienek lagundu baitute bertan, eta saiatu baikara ez inor kanpoan uzten, ikuspegi guztiak ondo ordezkaturik egon zitezkeen. Guztira, 50 pertsonak baino gehiagok esku hartu dute zuzenean prozesuan, eta ikastegiak eskerrak eman nahi dizkie.

Dokumentu honetan deskribatuta datoz, halaber, prozesuan zehar erabilitako metodologia eta izandako etapak:

- 1- Prozesua abian jartzea, ikastegian haren berri emanez eta II nahiz AZP kolektiboentzako informazio saioak eginez.
- 2- Barne analisia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen *Xedea, Ikuspegia eta Balioak* berraztertzea eta ikastegiaren *Ahulguneak eta Indarguneak* identifikatzea.
- 3- Kanpo analisia: *Mehatxuak eta Aukerak* identifikatzea, hau da, ikastegiaren jarduera eta emaitzak baldintza ditzaketen kanpoko faktoreak.
- 4- Estrategia definitzea, aurreko analisiaren emaitzetan oinarrituta (AMIA analisia).
- 5- Gauzatu beharreko ekintzen proposamen zehatza prestatzea.
- 6- Zabaltzea eta feedbacka jasotzea.

Egindako lanak eta horrek dokumentu honetan duen islak gure jarduera eta gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetzeko balio izatea nahi nuke, eta horixe espero dut.

Joseba Pineda Ortiz

Dekanoa

2. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Abiapuntutzat hartuta Fakultateari buruzko informazioa, haren bilakaerarekin eta orainarekin lotua, egungo egoeraren diagnostikoa egin da, metodologia partizipatiboa erabiliz, eta azterketa horretan aintzat hartu dira bai barne faktoreak, bai jardueraren garapenean eragina duten kanpo faktoreak. Behin osatuta, irudi hori baliagarria izan da ekimen berriak interpretatu eta antzemateko. Ardatzek, jarrera estrategiko bihurtuta, ibilbide orri gisa baliokidute, Fakultateak datozen urteetan izango duen ikuspegia finkatzeko; ikuspegi horrek Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estrategia orokorrarekin lerrokatuta egon beharko du.

| GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA | | |
|------------------------------------|------------|-------------|
| BARNE DIAGNOSTIKOA | AHULGUNEAK | INDARGUNEAK |
| KANPO DIAGNOSTIKOA | MEHATXUAK | AUKERAK |

- **INDARGUNEAK:** Erakunde baten barne faktoreak, emaitza onak lortzea erraz dezaketenak edo lehiarako abantaila izan daitezkeenak.
- **AHULGUNEAK:** Erakunde baten barne faktoreak, haren martxa ona muga dezaketenak, baita jarduteko gaitasuna edo aurreikusitako emaitzen erdiespena ere.
- **AUKERAK:** Inguruko faktoreak, erakunde batentzat abantaila edo aukera izan daitezkeenak bere funtzionamendua, aurrekontua, irudia eta entzutea hobetzeko edo emaitzak areagotzeko.
- **MEHATXUAK:** Barne faktoreak, erakundearen martxa onari kalte egin diezaioketenak, haren lehiarako gaitasuna murriztu dezaketenak, aurrean dituen arriskuak areagotu ditzaketenak edo emaitzak murriztu.

2.1. BARNE ANALISIA

Barne diagnostikoa egiteko bi osagai hartzen dira kontuan: INDARGUNEAK eta AHULGUNEAK. Fakultateak berak dauzkan gaitasun, gailu, baliabide, antolakuntza eta funtzionamenduari zerikusia duten alderdietan oinarrituta dago, eta alderdi horiek estrategia berriak zehazteko abiapuntutzat hartu behar dira.

Indarguneen laburpena

Fakultatearen indarguneei buruz egindako proposamenak taldekatuta, honako iritzi hauek agertu dira:

INDARGUNEAK

1. Fakultateak entzutea eta aintzatespena ditu, sortu zenetik egindako ibilbide luzearen eta izandako garapenaren emaitza, eta horrek eragin positiboa du bertako profesionalen kidetza sentimenduan.
2. Profil akademiko altuko irakasleak ditu, erronka berriei ekiteko gai direnak.
3. Fakultatearekin lotura duten unibertsitate ospitaleen sarea indargune argia da, eta garrantzitsua izan daiteke estrategia berriak oinarritzeko.
4. Fakultateko graduek elkarrekin erlazionatzeko eta jarduerak modu sinergikoan txertatzeko aukera eskaintzen dute.
5. Fakultatea erakarpen gunea da, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat.
6. Fakultateak garatu duen kudeaketa prozesuan, irakats jardunbide egokiak erregistratu eta sartu dira pixkanaka, eta horiek, hedatuta, etengabeko hobekuntzaren oinarri gisa balio behar dute.
7. Pertzepzioak eta adierazleak erakusten dute Fakultatean ikasi duten ikasleen enplegarritasun ehuneko handia dela, eta curriculumerako mesedegarria da ikasketak bertan egin izana.
8. Fakultateak esperientzia eta jardunbide onak lortu ditu kalitate eredu propioa, eta Unibertsitatearekin partekatua, ezarrita eta hura etengabe ebaluatuta, eta eredu hori jada bere eguneroko jardunean txertatuta dagoen kudeaketa elementu bat da.
9. Ikerketa jarduera ildo erabat txertatua da Fakultatean, eta esparru horretan lortutako emaitzek aitorpena jaso dute, bai ikasleak erakartzeko elementu gisa, baita irakasleak garapena eta entzutea lortzeko eremu gisa ere.

Ahulguneen laburpena

Fakultatearen ahulguneei buruz egindako proposamenak taldekatuta, honako iritzi hauek agertu dira:

AHULGUNEAK

1. Fakultatearen jarduera garatzeko azpiegiturak hobetu egin behar dira, argi eta garbi, erronka berriei heldu ahal izateko; instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko planak ez dira ezarri, edo batzuetan atzeratu egin dira, hainbat arrazoi tarteko.
2. Hobekuntzarako tartek antzematen dira kudeaketa eredian, eta beharrezkoa da eredia modernizatuko duten tresna eta aktibo berriak sartzea, prozesuak hobetu eta arintzeko, jarduera ildoen integraziorako ahalmen handiagoa izateko eta erakundean lidergo berri eta hobeak azalera errazteko.
3. Aurreko ahulgunearekin lotuta, eta horren ondorio gisa, proposatu da antolakuntza eredia hobetu beharra dagoela, hura osatzen duten eragileen arteko koordinazioari dagokionez.
4. Irakasleen egonkortasuna areagotu behar da, eta horretarako ezinbestekoa da erakarpen maila hobetzea eta talentua nahiz Fakultateko tituluetako irakasle espezifikoak atxikitzea.
5. Eskaria hobeto kudeatu behar da, Fakultaterako sarbidea eragingarriagoa izan dadin.
6. Graduen integrazio prozesua hobetzea komeniko litzateke, irakaskuntzaren kalitate mailak hobetzeko.
7. Fakultatearekin lotura duten unibertsitate ospitaleekiko harremana hobetu egin daiteke nabarmenki, eta harreman hori indartzeko ekintzak txertatu behar dira.
8. Era berean, zerbitzu klinikoetatik datozen profesional kolaboratzaileek bizikiago eta nabarmenkiago parte hartu behar dute.
9. Antolakuntzari dagokionez, Sailen eta Fakultatearen arteko harremanetarako eremu gehiago eta hobeak aurkitu behar ditugu, horiek nabarmenkiago inplikatu dituzten esku hartzeak sartuta.
10. Ikerketa jarduna nabaria dela onartu arren, Fakultateak areagotu egin behar du, bere planteamendu estrategikoarekin bat datorren jarrerari eusteko.
11. Barne komunikazioa berraztertu eta hobetu egin behar da, Fakultateak abian jartzen dituen estrategiei eta ekintzei lotutako ezagutza, partaidetza eta inplikazio handiagoa lortzen laguntzeko.
12. Aurreko puntuarekin lotuta, kanpo komunikaziorako plan bat formalizatu eta gauzatu behar dugu, gure eragileekin harreman estuagoa izan dezagun, gure ekintzen ezagutzatik eta gardentasunetik abiatuta.

Barne egoeraren diagnostikoari buruzko laburpena

Fakultateak egun duen egoeraren barne diagnostikoaren eskema gisa, honako taula hau proposatzen da:

| BARNE ANALISIA | |
|--|--|
| INDARGUNEAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ▪ IBILBIDEA ▪ IRAKASLEEN PROFILA ▪ UNIBERTSITATE OSPITALEEN SAREA ▪ GRADUEN ARTEKO SINERGIA AHALMENA ▪ ERAKARPEN AHALMENA | <ul style="list-style-type: none"> ▪ JARDUNBIDE EGOKIAK ▪ ENPLEGAGARRITASUNA ▪ ESPERIENTZIA KALITATEAREN KUDEAKETAN ▪ IKERKETAREN AINTZATESPENA ▪ CAMPUS BIRTUALA |
| AHULGUNEAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ▪ EGITURA FISIKOA ▪ KUDEAKETA EREDUA: INTEGRAZIOA, MODERNIZAZIOA ETA LIDERGOA HOBETZEA ▪ BARNE KOORDINAZIOA ▪ IRAKASLEEN EGONKORTASUNA ▪ ESKARIAREN KUDEAKETA ▪ GRADUEN INTEGRAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> ▪ UNIBERTSITATE OSPITALEEKIKO HARREMANA ▪ KLINIKOEN PARTE HARTZEA ▪ SAILEN ETA FAKULTATEAREN ARTEKO HARREMANA ▪ IKERKETAREN BOLUMENA ▪ BARNE KOMUNIKAZIOA ▪ KANPO KOMUNIKAZIOKO PLANA |

2.2. KANPO ANALISIA

Kanpo analisirako, oinarritzat hartzen dira ikasleekin, interes taldeekin (*stakeholders*), itunekin eta gizarteak zein finantzatzaileek espero dituzten emaitzekin lotutako alderdiak, eta horiek estrategia berria zehazteko abiapuntu gisa hartu behar dira. Bi osagai aztertzen dira: AUKERAK eta MEHATXUAK.

Aukeren laburpena

Fakultatearen aukerei buruz egindako proposamenak taldekatuta, honako iritzi hauek agertu dira:

AUKERAK

1. *Medikuntza eta Erizaintza Fakultate* bakarra da EAEn, eta, hortaz, berak bakarrik eskain ditzake Osasun Zientzietako graduoko ikasketa jakin batzuk, prestakuntza ona ematen dutenak bai gaztelaniaz, bai euskaraz.
2. Ikastegian diharduten osasun arloko profesionalek, irakasleek eta ikasleek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote ikasketa planetako programak gizartearen eskakizunetara egokitzeari: zeharkako konpetentzietan trebatzeari, lehen mailako arreta sartzeari eta laguntzaren ikuspegi integrala eskaintzeari.
3. Irakasleek esperientzia handia dute ospitaleetako prestakuntza espezializatuan, eta irakasle klinikoek zubi lan handia egiten dute egitura akademikoen eta osasun arloko egituren artean.
4. Teknologia berriek eta simulaziorako bitartekoek potentzialtasun handia dute, eta horiek ospitale birtualen garapena sustatzen dute.
5. Kanpoko zentroekin finkatuta daude hainbat hitzarmen, eta horrek aliantzen kudeaketa egokia ahalbidetzen du.
6. Lurralde osoko osasun zentroen sarea erabil daiteke, hala nola Galdakao-Usansolo Ospitalea edo beste batzuk, baita lehen mailako arretarako sarea ere.
7. Osakidetza da gradu guztietarako eragile komuna, eta hori mesedegarria izan daiteke sinergiak sortzeko bai Fakultate barruan, baita Fakultatearen eta hari lotutako unibertsitate ospitaleen eta ikerketarako bioinstituten artean ere.
8. Ikasleek, oro har, iritzi ona dute irakasleen irakaskuntzari buruz, eta hori abiapuntu ona da haiek berrikuspen eta hobekuntza prozesuetan inplikatzeko.
9. Eskaria handia da gradu guztietan, eta enplegarritasuna bikaina, eta lotura dago osasun sistemarekin, zeinak enplegua emango dien ikasle askori eta prestakuntza espezializatu egokia eskainiko dien BAME/BAEE programaren bidez, besteak beste.
10. Osasun arloko profesionalek eta BIOMEDIKUNTZAREN arloarekin lotutako orok entzutea eta protagonismoa dute gizartearen.
11. Handia da Unibertsitatearen edo kanpoko eragileen etengabeko prestakuntza eskaria.
12. Masterren kudeaketa ikastegietan sar daiteke, graduondokoak eta ikerketa biomedikoa graduatu aurreko irakaskuntzara hurbiltzeko eta ikastegiaren kanpo hedapena hobetzeko.
13. Masterren kudeaketa ikastegietan sar daiteke, horien programak egokitzeko eta ikerketa jarduera orokorra sustatzeko, langile klinikoaren profil ikertzailea indartzeko, zehazki.
14. Ikerketak gero eta garrantzi handiagoa du osasunaren arloan, eta Biozientzia-Osasuna alorra da Euskadi 2020 – Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeko (ZTBP EUSKADI 2020) lehentasunezko hiru ardatzetako bat.
15. Ospitaleetako bioinstitutuak (BioDonostia, BioCruces Bizkaia, Bioaraba) erakarpen

guneak izan daitezke, ikastegiko irakasleek beren ikerketa jarduna gara dezaten.

16. Ikasleen mugikortasuna areagotu daiteke, haien nazioartekotzea mesedetzeko.
17. Garai bateko Medikuntza eta Odontologia Fakultatea Erizaintza Eskolekin batera berregituratuta erraztu egingo dira baterako hobekuntza, sinergiak, koordinazioa eta ikastegiak UPV/EHUekin duen harremana.
18. UPV/EHUko ikastegiaren ebaluazio instituzionala egiteko protokolo/programa berriak ezar daitezke, ageriago utziko dutenak Fakultatearen potentziala/jarduera eta Unibertsitateari egiten dion ekarpena, eta haren behar espezifikoak ezagutzera emango dituztenak.

Mehatxuen laburpena

Fakultatearen mehatxuei buruz egindako proposamenak taldekatuta, honako iritzi hauek agertu dira:

MEHATXUAK

1. Pixkanaka aldatzen ari da osasun arloetako ikasleen profila, eta horien lehentasunek, interesek edo motibazioek zerikusi txikiagoa izan dezakete “bokaziozko” balioekin.
2. Irakasleek apenas parte hartzen dute unibertsitateko jardueretan.
3. Irakasleek iritzi kaskarra dute eskoletan erabiltzen diren irakats metodologiei buruz, eta, oro har, uste dute ez direla egokiak lortu nahi diren helburuak lortzeko, edo metodologia berritzaileak noizean behin bakarrik erabiltzen direla eta ez daudela sistematizatuta. Horrek berekin dakar absentismoa gero eta handiagoa izatea.
4. BAME azterketa lehentasunezko helburu bilakatzen da, eta baldintzatu egiten ditu bai ikasleak, baita irakasleen irakaskuntza ere; era berean, BAME plazen kopuruak baldintzatu egiten du Fakultatearen prestakuntza bolumena (ikasle kopurua).
5. Oinarrizko zenbait irakasgai hipertrofiatuta daude ikasketa planetan, zenbait irakasgai klinikoren kaltetan; sail batzuetan irakasle ez-klinikoek duten nagusitasunak eragin du hori, eta nagusitasun hori erabilitako irizpideen ondorio da, ikerketako merezimenduak egiaztatu eta lehenesten baitira, irakaskuntzako edo asistentziako merezimenduen gainetik.
6. Gradu batzuetako ikasleek harreman eskasa edo berantiarra izaten dute gaixoekin eta lehen mailako arretaren ingurunearekin.
7. Sailak atalka antolatuta daude, eta horrek zaildu egiten du prestakuntza zeharkakoa eta jeneralista eskaintzea edo edukiak sailen artean koordinatzea.

8. Ikasketa planetako egiaztapen eta ebaluazio sistemak zurruneziak dira, eta zaildu egiten dute ikastegiko graduen ezaugarrietara egokitzea.
9. Aldatu egin da Fakultateko irakasleen profila: osasun arloko profesionalak diren irakasle iraunkor gutxiagok ematen dituzte eskolak eta, hortaz, Fakultateko graduekiko egokitzapena txikiagoa da, eta lidergo eredu lausoagoa.
10. Zailtasunak daude talentua erakarri eta leialtzeko, irakaskuntza kliniko irakasle elkartuetan oinarrituta dagoelako eta sistemaren zurruntasunak ez duelako errazten plaza iraunkorretarako egiaztatzea edo lehen mailako arretan irakasle elkartuak egotea.
11. Osasun arloa espezializatuegia eta teknifikatuegia dago, eta horrek berekin dakar prestakuntza zatikatzea eta mespretxuz tratatzea oinarrizkoagoak diren zenbait eduki, hala nola kronikotasuna, edo alde batera uztea osasuneko zehar kompetentziak, hala nola erabakimena, pentsamendu kritikoa, asertibitatea, taldeko lana, komunikazioa, enpatia eta elkartasuna.
12. Hutsuneak daude praktika klinikoan antolamenduan, zaila delako ospitaleko eta osasun zentroetako praktiken eredu unibertsitatearen logistikan sartzea.
13. Koordinazio falta dago antolakuntzako instantzien, ikasleen eta irakasle edo tutoreen artean.
14. Osasun Saila eta Hezkuntza Saila ez datoz bat Fakultateko zenbait alderdiri dagokionez.
15. Zailtasunak daude ikasleei ulertarazteko zer nolako garrantzia duen ikerketak etorkizun profesionalerako beharrezko alderdi gisa. Hori, neurri batean, ikasleei ikerketari buruzko orientaziorik ematen ez zaielako gertatzen da.
16. Doktorego programa klinikoan plaza gutxi dago, bereziki arlo jakin batzuetan, erizaintzan edo familiako medikuntzan, adibidez.
17. Unibertsitateko gestioa burokratizatuta dago, eta AZPko langileen gabezia handia da; horrek denbora asko kentzen dio garrantzitsua denari, lan zama administratiboa handitu egin baita.
18. Unibertsitateko sektore batzuek iritzi negatiboa dute Fakultateari buruz, zaila delako hura egitura orokorrean txertatzea.
19. Diru sarrerak eskuratzeko bide berriak lortzeko zailtasunak daude, eta administrazioak ez du laguntzarik ematen oinarrizko jarduerari heltzeko, hala nola Kompetentzien Azterketa Objektibo eta Egituratua egiteko.
20. Ikastegiaren egitura fisikoa eta arkitektonikoa oso eskasa da bere egoitzan eta irakaskuntzako unitate batzuetan; hortaz, are premiazkoagoa da Fakultate berria planifikatu eta eraikitzea.
21. EAEn beste Medikuntza Fakultate pribatu bat baimenduz gero, denborarekin horrek ordeztu egin lezake publikotik sartzen diren ikasleen zati bat, eta osasun zentroetako baliabideak praktika klinikoetarako erabiltzeko aukera murriztu lezake.
22. Fakultateak ez du agerikotasunik ingurune nazionalen eta nazioartekoan.

23. Ez da interes taldeetara eta gizartera hedatzen ikastegiak garatzen duen jarduera guztia.

24. Aldaketaren alde egingo duten liderrak falta dira.

Kanpo egoeraren diagnostikoari buruzko laburpena

Fakultateak egun duen egoeraren kanpo diagnostikoaren eskema gisa, honako taula hau proposatzen da:

| KANPO ANALISIA | |
|---|--|
| AUKERAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ▪ IKASKETEN KALITATEA ETA HOBEKUNTZA ▪ IKASLEEN IRITZIA ▪ ENPLEGAGARRITASUNA ▪ GIZARTEAREN ESKAKIZUNETARA EGOKITZEKO GAITASUNA ▪ OSASUN SISTEMA ETA HAREN LAN-KIDETZA AHALMENAK ▪ MEF-REN ERAGINA UPV/EHU-N | <ul style="list-style-type: none"> ▪ IKUSPEGI INTEGRALA ETA KONPETENTZIAK ▪ MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA ELKARTZEA ▪ KANPO ALIANTZAK ▪ MASTERRAK ETA DOKTOREGOAK ▪ NAZIOARTEKOTZEA ▪ EBALUATZEKO GAITASUNA ▪ IKERKETAKO, BIOMEDIKUNTZAKO ETA BERRIKUNTZAKO POTENTZIALITASUNA |
| MEHATXUAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> ▪ ITXAROPENEN KUDEAKETARI ETA IKASLEEN PARTAIDETZARI JARAMONIK EZ EGITEA ▪ BAME-REN IKUSPEGIA ▪ IRAKASLEEN EGOERA ▪ PRESTAKUNTZAREN ETA PRAKTIKEN PLANGINTZA ETA KOORDINAZIOA ▪ PRESTAKUNTZAKO METODOLOGIAK ▪ OSPITALEEKIKO KOORDINAZIOA. URRUTIKO HARREMANA GAIXOAREKIN | <ul style="list-style-type: none"> ▪ UPV/EHU-REKIKO HARREMANA. FINANTZAKETA ETA AZPIEGITURAK ▪ OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOEN ARTEKO DESADOSTASUNAK ▪ BUROKRATIZAZIOA ETA BERRANTOLAKETA ▪ MEDIKUNTZA FAKULTATE PRIBATUA ▪ NAZIOKO ETA NAZIOARTEKO POSIZIO-NAMENDUA ▪ IKERKETARI, BIOMEDIKUNTZARI ETA BERRIKUNTZARI BURUZKO IRITZIA |

Hortaz, Fakultateak egun duen egoeraren irudia irudikatuta ageri da AMIA honetan:

| | |
|---|---|
| <p>AHULGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • EGITURA FISIKOA • KUDEAKETA EREDUA: INTEGRAZIOA, MODERNIZAZIOA ETA LIDERGOA HOBETZEA • BARNE KOORDINAZIOA • IRAKASLEEN EGONKORTASUNA • ESKARIAREN KUDEAKETA • GRADUEN INTEGRAZIOA <ul style="list-style-type: none"> ▪ UNIBERTSITATE OSPITALEEKIKO HARREMANA ▪ KLINIKOEN PARTE HARTZEA ▪ SAILEN ETA FAKULTATEAREN ARTEKO HARREMANA ▪ IKERKETAREN BOLUMENA ▪ BARNE KOMUNIKAZIOA ▪ KANPO KOMUNIKAZIOKO PLANA | <p>INDARGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • IBILBIDEA • IRAKASLEEN PROFILA • UNIBERTSITATE OSPITALEEN SAREA • GRADUEN ARTEKO SINERGIA AHALMENA • ERAKARPEN AHALMENA <ul style="list-style-type: none"> ▪ JARDUNBIDE EGOKIAK ▪ ENPLEGAGARRITASUNA ▪ ESPERIENTZIA KALITATEAREN KUDEAKETAN ▪ IKERKETAREN AINTZATESPENA ▪ CAMPUS BIRTUALA |
| <p>MEHATXUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • ITXAROPENEN KUDEAKETARI ETA IKASLEEN PARTAIDETZARI JARAMONIK EZ EGITEA • BAME-REN IKUSPEGIA • IRAKASLEEN EGOERA • PRESTAKUNTZAREN ETA PRAKTIKEN PLAN-GINTZA ETA KOORDINAZIOA • PRESTAKUNTZAKO METODOLOGIAK • OSPITALEEKIKO KOORDINAZIOA. URRUTIKO HARREMANA GAIXOAREKIN <ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHU-REKIKO HARREMANA. FINANTZAKETA ETA AZPIEGITURAK • OSASUN ETA HEZKUNTZA ARLOEN ARTEKO DESADOSTASUNAK • BUROKRATIZAZIOA ETA BERRANTOLAKETA • MEDIKUNTZA FAKULTATE PRIBATUA • NAZIOKO ETA NAZIOARTEKO POSIZIO-NAMENDUA • IKERKETARI, BIOMEDIKUNTZARI ETA BERRIKUNTZARI BURUZKO IRITZIA | <p>AUKERAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • IKASKETEN KALITATEA ETA HOBEKUNTZA • IKASLEEN IRITZIA • ENPLEGAGARRITASUNA • GIZARTEAREN ESKAKIZUNETARA EGOKITZEKO GAITASUNA • OSASUN SISTEMA ETA HARK LANKIDETZARAKO DUEN GAITASUNA • MEF-REN AGERIKOTASUNA UPV/EHUN <ul style="list-style-type: none"> • IKUSPEGI INTEGRALA ETA KONPETENTZIAK • MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZTA ELKARTZEA • KANPO ALIANTZAK • MASTERRAK ETA DOKTOREGOAK • NAZIOARTEKOTZEA • EBALUATZEKO GAITASUNA • IKERKETAKO, BIOMEDIKUNTZAKO ETA BERRIKUNTZAKO POTENTZIALITASUNA |

3. XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

XEDEA


Fakultatearen izateko arrazoa zein den zehaztu behar dugu: zer eginkizun betetzen duen, norentzat, nola gauzatzen duen eginkizun hori eta zergatik existitzen den. Garrantzitsua da gure xedea finkatzea, gure izateko eta lan egiteko arrazoi benetakoa adierazi eta ezagutzera eman ahal izateko.

BALIOAK

Gure ikastegiaren printzipio eta postulatu nagusi, inspiratzaile eta iraunkorrak zehaztu behar ditugu: zein den gure ezaugarria eta zerk bereizten gaituen, nola jokaten dugun, nola erlazionatzen garen, besteek nola identifika gaitzaten nahi dugun. Guztiok partekatzen ditugun balioak erabiliz lan egin nahi dugu, erronka berriei aurre egitea eta zailtasunak gainditzea ahalbidetuko diguten balioak erabiliz.

IKUSPEGIA

Etorkizunean nolako Fakultatea nahi dugun zehaztu behar dugu. Garrantzitsua da gure ikuspegia finkatzea, gainerakoei adierazi eta jakinarazi ahal izateko zein den gure nahia eta noraino heldu nahi dugun. Ikastegiko langileek jakin egin behar dute erakundea norantz doan, eta eurek ere helburu horren parte direla sentitu behar dute; eta etorkizuneko erronkek jendea animatu eta gogoberotu behar dute, gure bereizgarri izan behar dute, eta gizarteak ere ezagutu behar ditu.



Barne analisian parte hartu dutenen gogoetaren emaitza gisa, dekanotza taldeak aurkezpen hau proposatzen du:

XEDEA

Erakunde publikoa, eleaniztuna eta euskal gizartean errotua gara, herritarren osasuna hobetzen laguntzen duena tituludun trebeak prestatuz, eta ezagutza zientifikoa nahiz bikaintasunezko ikerketa sustatzen dituen nazioarteko eremuan.

BALIOAK

- ✓ **Etika profesionala, fidagarritasuna eta erantzukizuna**
- ✓ **Integrazioa eta konpromisoa**
- ✓ **Pertsonetan ardaztutako empatia**
- ✓ **Erakunde publiko bateko kide izateagatiko harrotasuna**

IKUSPEGIA

Gure inguruan erreferentziazko Fakultatea izan nahi dugu osasun zientzietako profesionalen prestakuntzan eta ezagutzen sorkuntzan; gai izan nahi dugu aldaketetara moldatzeko eta gure gizartearen eskaerak gure gain hartzeko, eta nazioan nahiz nazioartean ezagut gaitzaten lortu nahi dugu.


4. POSIZIONAMENDUA ETA MAPA ESTRATEGIKOA

AMIA analisia abiapuntutzat hartuta, jarduera ildo oinarrizkoak ezarri ditugu. Ildo horiek lagungarriak izango zaizkigu IKUSPEGIA lortzera eramango gaituen estrategia bat zehazteko. Egungo egoera kontuan hartuta estrategia nola gauzatu identifikatzen dute:

- ✓ Aukerez baliatuz
- ✓ Indarguneak indartuz
- ✓ Mehatxuei aurre eginez
- ✓ Ahulguneak zuzenduz

Azken batean, ahalik eta posizio objektiboenean kokatzen dute Fakultatea, estrategia behar bezala definitzeko. Lau alderdirekin lotutako estrategia ildoak definituko ditugu: EMAITZAK, BEZEROAK, PROZESUAK ETA ANTOLAKUNTZA. Horiei esker, gure ikuspegia lortzen lagunduko diguten ekintzak kokatuko ditugu eremu bakoitzean.

- Gure emaitzak: gure Unibertsitateak eta gure irakats jarduera garatzen dugun gizarteak eskatutakoak.
- Gure bezeroak: ikasleak, zeinak baitira gure irakats ekintzaren xede hurbilekoena, eta gizartea, zeina baita gure zerbitzuak behar dituen amaierako bezeroa.
- Gure prozesuak: nola garatu behar dugun gure jarduera modu eraginkorrean, eragingarrian eta kalitate irizpideekin.
- Gure antolakuntza: nola aplikatzen eta hobetzen ditugun gure ahalmena eta eskura ditugun giza baliabideak nahiz egiturazkoak.



Nahi duguna lortzeko, Fakultatearen posizionamenduak honako estrategia hauek izango ditu ardatz:

EMAITZAK:

- Fakultatearen agerikotasuna areagotzea, emaitzen eta gardentasunaren bidez.
- Fakultatea jasangarria, eraginkorra eta eragingarria delako pertzepzioa bermatzea.
- Nazioko nahiz nazioarteko presentzia eta aintzatespena sustatzea.
- Fakultatearen estrategiak UPV/EHUrekin eta Osakidetzarekin lerrokatzea.

BEZEROAK:

- Osasun eta gizarte ingurunearekiko aliantzak eta adostasunak bultzatzea.
- Ikasleei funtsezko tokia ematea Fakultateko jardueretan.
- Ikerketa eta berrikuntza sustatzen duten eragileak erakartzea.
- Irakats eskaintza egokia, erakargarria eta bereizlea egitea gradu guztietan.

PROZESUAK:


- Etengabe hobetzea funtsezko prozesuen eta irakaskuntzako jardunbide egokien kalitatea.
- Unibertsitate ospitaleekiko eta osasun zentroekiko harremana eta koordinazioa birdefinitzea.
- Kanpo eta barne komunikaziorako plan bat zehaztu eta ezartzea.
- Graduondoko eskaintza eta ikerketa garatu, zabaldu eta finkatzea.

ANTOLAKUNTZA:

- Are gehiago erakarri eta atxikitzea irakasleen talentua.
- Antolakuntzako egitura arin eta erabakitzaileak ezartzea.
- Ezagutzaren kudeaketa eta jardunbide egokien aintzatespena sustatzea.
- Azpiegitura fisikoak hobetzea, irakaskuntzako estrategia garatu ahal izateko.

Ikastegiaren posizionamendu estrategikoa MAPA ESTRATEGIKOAN dago jasota. Mapa estrategikoa Fakultateak bere ikuspegia erdiesteko dituen planen adierazpen grafiko eta sintetikoa da.

MAPA ESTRATEGIKOA



5. ARDATZ ESTRATEGIKOekin LOTUTAKO EKINTZAK

UPV/EHUren 2018-2021 aldirako Plan Estrategikoa onartu ostean, Fakultateak bere helburuak finkatu eta ekintzak zehaztu ditu, erakunde osorako proposatutako ardatz estrategikoak aintzat hartuta, zeinak diren:



UNIBERTSITATEKO ARDATZAK

- I. PRESTAKUNTZA
- II. IKERKETA
- III. GIZARTEAREKIKO HARREMANA
- IV. PERTSONAK
- V. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Horretarako, lehenik eta behin AMIA analisiaren bidez lortutako posizionamendu estrategikoko ildoak unibertsitateak zehaztutako ardatzekin erlazionatu ditugu. Bigarrenik, UPV/EHUren ardatz estrategiko bakoitzerako helburu estrategikoak zehaztu ditugu, eta horiek erdiesteko beharrezkoak diren ekintzak proposatu ditugu, baita lorpen maila neurtzeko aukera emango diguten adierazleak ere.

Jarraian ageri diren tauletan xehatuta dago zer posizionamendu ildo esleitu zaizkion ardatz estrategiko bakoitzari, baita zehaztutako helburu, ekintza eta adierazleen zerrenda ere.

| POSIZIONAMENDU ESTRATEGIKOA (AMIA analisitik aterata) | | UPV/EHU-REN ARDATZ ESTRATEGIKOAK | | | | |
|---|--------------|----------------------------------|-------------------------|---|--------------------------|--------------------------|
| | | 1. ARDATZA: PRESTAKUNTZA A | 2. ARDATZA: IKERKETA | 3. ARDATZA: GIZARTE KONPROMISO A | 4. ARDATZA: PERTSONAK | 5. ARDATZA: KUDEAKETA |
| Fakultatearen agerikotasuna areagotzea, emaitzen eta gardentasunaren bidez | EMAITZAK | | | | | |
| Fakultatea jasangarria, eraginkorra eta eragingarria delako pertzepzioa bermatzea | | | | | | |
| Nazioko nahiz nazioarteko presentzia eta aintzatespena sustatzea | | | | | | |
| Fakultatearen estrategiak UPV/EHUrekin eta Osakidetzarekin lerrotzea | | | | | | |
| Osasun eta gizarte ingurunearekiko aliantzak eta adostasunak bultzatzea | BEZEROAK | | | | | |
| Ikasleak Fakultateko jardueren erdigunean kokatzea | | | | | | |
| Ikerketa eta berrikuntza sustatzen duten eragileak erakartzea | | | | | | |
| Irakats eskaintza egokia, erakargarria eta bereizlea egitea gradu guztietan | | | | | | |
| Etengabe hobetzea irakaskuntzako jardunbideak | PROZESUAK | | | | | |
| Etengabe hobetzea funtsezko prozesuen kalitatea | | | | | | |
| Unibertsitate ospitaleekiko eta osasun zentroekiko harremana eta koordinazioa birdefinitzea | | | | | | |
| Barne komunikaziorako plan bat zehaztu eta ezartzea | | | | | | |
| Kanpo komunikaziorako plan bat zehaztu eta ezartzea | | | | | | |
| Graduondoko eskaintza eta ikerketa garatu, zabaldu eta finkatzea | | | | | | |
| Are gehiago erakarri eta atxikitzea irakasleen talentua | ANTOLAKUNTZA | | | | | |
| Antolakuntzako egitura arin eta erabakitzaileak ezartzea | | | | | | |
| Jardunbide egokiaren aintzatespena sustatzea | | | | | | |
| Ezagutzaren kudeaketa sustatzea | | | | | | |
| Azpiegitura fisikoak hobetzea, irakaskuntzako estrategia garatu ahal izateko | | | | | | |

IKASTEGIAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. ARDATZA. PRESTAKUNTZA. Graduak eta graduondokoak (tituluen kudeaketa, kalitatea, berrikuntza eta irakaskuntzaren hobekuntza). Nazioartekotzea.

1. helburua. Osasun eta gizarte ingurunearekiko aliantzak eta adostasunak bultzatzea (+IA).
2. helburua. Irakats eskaintza eleaniztuna eta lehiakorra sustatzea (-AM)
3. helburua. Berrikuntza eta irakats koordinazioa sustatzea (+IA)
4. helburua. Fakultateko ikasle, irakasle eta AZPko langileen mugikortasuna eta nazioartekotzea sustatzea.
5. helburua. Graduondoko eskaintza garatu, zabaldu eta finkatzea (-AM).

2. ARDATZA. IKERKETA. I+G+b. Osasun koordinazioa, oinarrizkoa-klinikoa, egiaztapenak, doktoregoa.

1. helburua. Sinergiak sortzea gure inguruko ikerketa erakunde eta elkarteekin (+IA).
2. helburua. Fakultateko ikerketa eta berrikuntza indartzea, baita haren hedapena ere (AxM)

3. ARDATZA. GIZARTE KONPROMISOA. Irudia, hedapena, aliantzak, gizarte erantzukizuna.

1. helburua. Fakultateko emaitzak gizarteratzea eta ikusaraztea (+IA).
2. Helburua. Fakultate konprometitu, jasangarria, solidarioa eta berdinzalea sustatzea (IxM).

4. ARDATZA. PERTSONAK. II, AZP, ikasleak eta egresatuak (arreta, komunikazioa, prestakuntza).

1. helburua. Ikasleei merezi duten tokia ematea Fakultateko jardueretan (IxM).
2. helburua. Irakasleen unibertsitateko ibilbidea sustatzea (+IA).
3. helburua. AZPko langileen unibertsitateko ibilbidea sustatzea (+IA).

5. ARDATZA. KUDEAKETA. Azpiegiturak eta baliabide materialak. Gobernantza (ikastegiaren antolakuntza, egitura eta hobekuntza).

1. helburua. Kudeaketaren, irakaskuntzaren eta ikerketaren koordinazioa hobetzea (+IA).
2. helburua. Ikastegian irakaskuntzari, praktika klinikoei eta graduondokoei lotuta ezarrita dauden araudiak eta arauak egokitzea.
3. helburua. Antolakuntzako egitura arin eta erabakitzaileak ezartzea, eta burokrazia sinplifikatzea (IxM).
4. helburua. Azpiegitura fisikoak hobetzea, irakaskuntzako estrategia garatu ahal izateko (-AM).

2018-21 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

| | | |
|---|--|--|
| LABURPENA: <ul style="list-style-type: none"> • ARDATZAK: 5 • HELBURUAK: 16 • EKINTZAK: 53 • ADIERAZLEAK: 58 | <ul style="list-style-type: none"> • 1. ARDATZA: 5 helburu, 16 ekintza, 20 adierazle. • 2. ARDATZA: 2 helburu, 4 ekintza, 4 adierazle. • 3. ARDATZA: 2 helburu, 8 ekintza, 9 adierazle. • 4. ARDATZA: 3 helburu, 9 ekintza, 9 adierazle. • 5. ARDATZA: 4 helburu, 16 ekintza, 16 adierazle. | |
| IKASTEGIKO ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOekin LOTURIKO EKINTZAK | | |
| 1. ARDATZA.- PRESTAKUNTZA. Graduak eta graduondokoak (titulazioen kudeaketa, kalitatea, berrikuntza eta irakaskuntzaren hobekuntza). Nazioartekotzea. | | |
| 1. Helburua. Osasun eta gizarte ingurunearekiko aliantzak eta adostasunak sustatzea. | | |
| EKINTZAK: | ARDURADUNA | ADIERAZLEAK |
| 1. Fakultatearen eta erakunde aliatuen arteko harremana arautuko duen bilera instituzionalen kronograma bat ezartzea. | Dekanoa | Batzordeen bilera kopurua/urte/erakunde |
| 2. Estrategia bat diseinatzea praktika klinikoan, <i>practicum</i> aren edo borondatezko praktiken eskaintza egonkortzeko eta laguntzaile edo instruktore kopurua areagotzeko (berezi lehen mailako arretakoak). | Dekanoa | Lankidetzak klinikorako memoria estrategikoa |
| 3. <i>Familia eta Komunitateko Medikuntzako Ikasgela</i> ezartzea UPV/EHU. | Dekanoa | Jarduera kopurua |
| 4. Galdakao/Usansoloko eta Elkartutako Galdakao/Usansolo Ospitaleko Medikuntzako Irakasgunearen prestakuntza proiektua prestatzea eta ezartzea. | Dekanoa | Prestakuntza proiektuaren memoria onartua Ikasle kopurua / urte |
| 2. Helburua. Irakaskuntza eskaintza eleaniztun eta lehiakorra sustatzea. | | |
| EKINTZAK: | ARDURADUNA | ADIERAZLEAK |
| 1. Graduetako ikasketa planak berrikusiko dituzten lantaldeak sortzea haien gabeziak hobetzeko eta premia profesional eta sozial berriei egokitzeko. | Dekanotza taldea | Gradu bakoitzeko lantaldeen memoriak |
| 2. Sarbide plazen eskaintza, hizkuntza eskaintza, irakaskuntza taldeen egitura eta graduetako hautazkoen eskaintza aztertzea eskaerei eta dauden baliabideei egokitzeko. | Dekanoa | Plangintza memoria |
| 3. Gure titulazioetan euskaraz ematen diren irakasgaien eta <i>English Friendly Courses</i> irakasgaien eskaintza hobetzea. | Euskarako dekanordea | Euskarazko irakasgaien areagotzea (Medikuntza / Odontologia) English Friendly Courses irakasgaien areagotzea Aitzinatun parte hartzen duten irakasleen kopurua |

| 3. Helburua. Berrikuntza eta irakaskuntza koordinazioa sustatzea. | | |
|--|---|---|
| EKINTZAK: | ARDURADUNA | ADIERAZLEAK |
| 1. Ikaskuntza aktiboko eta lankidetzako ikaskuntzako metodologi-en eta ebaluazio sistema berrien erabilera bultzatzea, horretarako egituratutako irakaskuntza talde berrituak sortuta eta jardunbide egokien eta irakaskuntzaren berrikuntzaren inguruko jardunaldiak antolatuta. | Irakaskuntza berrikuntzako dekanordea | Irakaskuntza talde egituratuen eta talde berritzaileen areagotzea Jardunbide egokiei eta irakaskuntza berrikuntzari buruzko jardunaldien kopurua |
| 2. Gaitasun klinikoaren eta zeharkako gaitasunen programa bat prestatzea ikastegiko graduatan. | Gratu koordinazioko errekotoreordea | Gaitasun klinikoaren eta zeharkakoaren programaren memoriak |
| 3. Medikuntzako seigarren mailako ikasleen txandakatzea eta EOKE aztertzea haien kudeaketa akademiko eta administratiboa hobetzeko. | Arlo Klinikoetako dekanordea | Txandakatzearen eta EOKEren berrikuntzearen memoria eta hobekuntza txostena |
| 4. Errealitate handituko eta simulazioko gela bat sortzea simulazio klinikoaren bultzatzeko eta Ospitale Birtualen erabilera hobetzeko. | Dekanoa Arlo Klinikoetako dekanordea | Errealitate Handituko eta Simulazioko Gelako memoria eta hitzarmena |
| 4. Helburua.- Fakultateko ikasleen, irakasleen eta AZPko langileen mugikortasuna eta nazioartekotzea sustatzea. | | |
| EKINTZAK: | ARDURADUNA | ADIERAZLEAK |
| 1. Mugikortasun programetan egonaldiak egiten dituzten (berezi Europa) ikasleen kopurua areagotzea. | Mugikortasun erako dekanordeak | Mugikortasuna egiten duten ikasleen areagotzea |
